

# PRENTSA DEIALDIA

Urtarrilaren 22an, osteguna, goizeko 10:00etan Euskadiko Biodibertsitate Zentroan - Madariga Dorretxean (Busturia) Aktibatu + programaren aurkezpena burutuko da. Aktibatu + programa aurrezten laguntzera eta ingurumena zaintzera bideratuta dago, eta 2014-2015 edizio honetan honako eskualdeetan burutzen ari da: Busturialdea-Urdaibai, Lea-Artibai eta Uribe Kosta.

Aktibatu + ekimena Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak, Bizkaiko Garraio Partzuergoak, Metro Bilbaok, Bizkaiko Foru Aldundiak, Garbiker Sozietate Publikoak, Eroski taldeak, Eusko Jaurlaritzak eta Energiaren Euskal Erakundeak (EEE) bultzatutako ekimena da. Ingurumenaren zaintza sustatzeko ekimen honen asmoa da herritarren parte-hartzea sustatzea ingurumen-iraunkortasunaren arloan. Global Action Planean (GAP) oinarritzen da, Nazio Batuek babestutako nazioarteko programan.

Prentsaurrekoa egingo dute Carlos Oppe nazioarteko GAPEko presidentek, Maria Uribe Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendariak eta Amaia Barredo Eusko Jaurlaritzako Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendariak.

Programaren koordinatzaileek, ekimenaren tokiko arduradunek eta programaren sustatzaileek ere parte hartuko dute prentsaurrekoan.

Gainera, edizio honetan ekimenaren irudi diren pertsona biren parte-hartzea ere izango da: ETBko programa ezberdinetako aurkezle den Sara Gandara eta Oihan Vega Egazteako lokutore, aurkezle eta DJa.

**Ekitaldia:** Aktibatu + aurkezpena

**Eguna:** 22/01/2015

**Ordua:** 10:00

**Tokia:** Euskadiko Biodibertsitate Zentroa - Madariga Dorretxea (Busturia).

Nola heldu: <http://www.torremadariaga.net/Paginas/Ficha.aspx?IdMenu=04d332ae-e8f5-4957-8d54-409a7b4cb053&Idioma=eu-ES>